

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sustapen Departamentuak Nafarroako 47 errepidetako zola konpontzeko proiektua hasi du 9 milioi euroko aurrekontuarekin

Errepideak kontserbatzeko zazpi zentrotan egingo dira konponketak, eta urte eta erdi iraungo dute.

Lunes, 21 de octubre de 2013

Sustapen Departamentuak gaur hasi ditu Iruñeko Kontserbazio Zentroko errepideen zolak konpontzeko lanak, eta, egun hauetan, Iruztzun, Lizarra, Mugairi, Agoitz eta Tafallako Kontserbazio Zentroetako errepideen konponketari ere ekingo dio, iragan neguko kanpainako eurite eta elurte handiek eragindako kalteak direla-eta. Konponketak burutzeko inbertsioa 9 milioi euro ingurukoa da, eta jarduerak 47 errepidetan egingo dira.

Birgaitzeko proiektuen kontratuak honako enpresa hauekin adostu dira: Eurocontratas S.A./Asfaltos y Construcciones Baztán S.A. (Iruña), Excavaciones y Transportes Orsa (Iruztzun) S.L., Riojana de Asfaltos S.A./Euroasfaltos de Navarra S.A. (Lizarra), Eurocontratas S.A./Asfaltos y Construcciones del Baztan S.A (Mugairi eta Agoitz) eta Excavaciones Fermín Osés S.L./Construcciones Beltrán Moñux S.A./Excavaciones Redondo Sorozábal S.L. (Tafalla).

Sustapen kontseilaren Foru Agindu bidez edo Obra Publikoetako zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez onartu diren lanei dagokienez, zolak obrak hasten direnetik 45 eguneko epean birgaituko direla aurreikusi da.

Konpondu beharreko zolak desitxuratuta, berezita eta adabakiz beteta daude eta irregulartasunak dituzte proiektuek jasotzen dituzten tartetan. Kasu batzuetan, birgaitzeko prozedura zera izango da, kaltetutako bidezorua fresatzea bost zentimetroko gutxienerako lodiera lortu arte, fresatutako gunea ekortzea, itsaspenerako emultsioa jartzea eta agregakin ofitikoaren nahasketa bituminoso beroa zabaltzea, ondoren trinkotzeko. Lanak bideko markak margotu eta gainazala fresatuta amaituko dira.

Beste kasu batzuetan, birgaitzeko prozedura gurril-geruza jarraitu bat zabaltzea izango da, hainbat luzeratakoa, errepidearen arabera, eta nahasketa bituminoso beroa erabiliz erregularizatuta. Azken kasu horietan ere, lanak bideko markak berriro margotzean amaituko dira.

Kaltetutako bideak eta zenbatekoak

Iruñeko Kontserbazio Zentroaren errepideetako zoruaren kalteak

konpontzeko lanetarako 1.118.822 euroko inbertsioa egin da.

Honako hauek dira konponduko direnak: PA-30 Iruñeko Ingurabidea, PA-31 Iruñerako sarbideak hegoaldeetik eta aireportutik, N-121-A Iruña Behobia (6 KPtik 24+960 KPra), N-121 Iruña-Tutera, NA-234 Arrizabalaga-Urrotz, NA-4118 Gaskue, NA-4230 Lizaso-Arraitz, NA-7004 Izkie-Artazkotz eta NA-7010 Astrain-Irurtzun.

Irurtzungo Kontserbazio Zentroko errepideen zoruak kontserbatu eta birgaitzeko obren kontratua 1.787.000 eurokoa izan da. Honako errepide hauetan egin dira konponketak: NA-4063 Etxarri-Larraun, NA-7505 Mugiro, NA-4111 Itsaso, NA-4113 Erbiti, NA-4119 Gartzaron, NA-4355 Ilarregi, NA-1700 Lekunberri-Leitza, NA-4011 Huitzi zeharbidea eta Gorriti zeharbidea, NA-7500 Irurtzun-Madotz-Lekunberri, NA-700 Iruña-Lizarra Etxauritik, NA-7061 Lizasoain-Oltza, NA-4120 Gulia-Arostegi.

Irurtzungo Kontserbazio Zentroko autobideak kontserbatu eta birgaitzeko Zarraluqui kontseilariaren beste Foru Agindu bat onetsi zen. Horren bidez, 1.203.000 euro bideratu dira Gasteiz norabideko A-1 autobideko, Donostia norabideko A-1 autobideko, A-15 Leitzarango Autobideko eta Sakanako Autobideko akatsak konpontzeko.

Bestalde, **Mugairiko Kontserbazio Zentroari** dagozkion errepideetarako aurrekontua 905.000 eurokoa da, eta lanak N-121-A Iruña-Behobia (24+960 KPtik 39 KPra), NA-170 A-15 Doneztebe parean eta N-121-B Iruña-Frantzia Dantxarinea inguruko errepideetan egingo dira.

Lizarrako Kontserbazio Zentroko bideen kalteak konpontzeko 1.000.000 euroko aurrekontua onetsi zen. Honako hauetan burutuko dira lanak: N-120 Lizarra Beasain, N-129 Azedo Lodosa, NA-132-A Lizarra-Gasteiz, NA-743 Genevilla Marañón, NA-7186 Artatza-Urra, NA-7187 Bakedao, NA-7205 Santsol-Desojo-Esprontzedea, NA-7211 Lapoblación-Aguilar Kodes, NA-7323 Iruñela eta NA-7327 Arandigoien.

Agoizko Kontserbazio Zentroko errepide batzuk ere konpondu egin behar dira, esate baterako, N-135 Iruña-Frantzia Luzaide parean eta NA-137 Burgi-Izaba-Frantzia. 1.452.848 euroko aurrekontua jaso da horietarako.

Azkenik, **Tafallako Errepideen Kontserbazio Zentroko** kaltetutako bideak hauek dira: NA-601 Arrizabalaga-Lerin, NA-2346 Alzorritz, NA-5141 Aiesa, NA-5005 Getze Ibargoiti, NA-5110 Leotz-Uzkita, NA-6120 Lerin-Berbintzana eta NA-5401 Rocaforte. Konpontzeko, Sustapen Departamentuak 1.911.403 euro eman ditu.